



II. ATALA ERRAMUN BAXOKEN OMENEZKO AITORTZAK

>>>

6

ERRAMUN BAXOKI GUTUN XUMEA

Jokin Apalategi

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Helbide elektronikoa: japalategi@yahoo.fr

Euskal Herrian euskaraz guti baino gutiago ditugun aldizkari zientifiko horietariko baten, hots, UZTARO giza-gizarte zientzien zuzendaria naitenez, zurekiko esker oneko agertzera pozaren pozaz nator, Bat Soziolinguistika aldizkariako zuzendari den Mari-Jose Azurmendiren gonbitea gogotik nire eginez.

Erramun, anitza zara. Orduan, biziki zaila da zure osotasunaren adierazle izatea gutun baten bidez. Eskaintzen dizuten Bat Soziolinguistika aldizkariaren zenbaki beteak, beharbada, lortuko du zu zeu zaren osotasun horretara irakurleak hurbilaraztea. Umatu dituzun fruituak banan-banan izendatzeko lain izanen baitira, agian. Fruituetatik, beste ezeren gainetik, ezagut baidezakegu zu zeu zaren zuhaitza. Hala gerta dadila desiro dut ! Hau horrela dela jakinean, bada, nire gutun honek zure fazeta anitzen azpiko ardatzaren adierazle xume izatea du helburu. Ez du bestelako pretentsiorik !

Gure XX. eta XXI. mendeetako euskal kulturako belaunaldi intelektualoi euskal unibertsoak osatzen dituen alor guztietan aritzea eta mugitzea, denetik egitea, denetaz guti edo anitz okupatzea tokatu zaigu. Dena galzorian eta desegituratzen ikustea tokatu baitzaigu euskal unibertsoan. Mendeetan euskarak eta euskal unibertsoak iraupena jarraituki egokituz

lortzeko eta etorkizunari aurre egiteko beharrezko zituen erakundeak, legeak eta tresneriak bere aukerara erabakiak subiranoki hartuz kudeatu zituen. Baina goi erdi-arotik honako mendeetan gure hurbileko Herrietan ukandako bilakaerek erakundetze eredu berriak abian jarri zituztenetik abantaila hartu ziguten Herrien arteko lehiaren eraginez piskanaka desegonkortasuna pairatzen hasi ginen etxean. Sartu ginen giroaren eraginez euskal kolektiboaren oharkabeko egoera ihardukitzea luze et nekeza egin zaigu. Erakunde, lege eta tresneria berriak behar ginuztela jabetzea eta horrez gero eskuratzeko borrokan sartzeta kontraesan eta kontraekimenez bete gertatu ziaigu..

Zu zeu arras gazterik ohartu zinen euskal intelektualaren eginbehar neketsu horretaz. Lekuko aita Lafitteri, 1940ko hamarkadan idatzi zenion gutun gartsu hura. Baina, handik aitzina norberak intelektual rolerako beharrezko dituen formakuntza eskuratzeta, autosufizientzia ekonomiko eta soziala lortzeta, eta hori guzia Euskal Herrian egunerokoari loturik burutzeko aukeran bihurtzeta tokatu zitzaizun banako borroka latz bat beste mediorik etzenuelarik. Oroitaraztekoa baita Herri subiranoetan eginkizun horiek erakundeetatik ixurtzen diren errekurso espezifikoak lagunduta egiten dituztela intelektualek. Aldiz XX. eta XXI mendeetako euskal intelektualak sasiko eta baztarreko bidezidorretatik eta zaflakoak bilduz ibili da. Herri subiranoetako intelektualekin lehiatu beharra gertatzen zaigunean berriz euskal intelektualak jokuz kanpo jatzeko asmoz objektuaren interesa pertsonara desbideratuz, argudioa ezeztatuz, jarrera zuzena lurperatuz, eta taldea ahulduz erasotzen zaigu urrikalmendurik gabe. Horretarako aski da jatorri psikiko, gizatar bezala aurkeztea hala ez dena. Ikuspegi hau gauzatzeko gu geu garen disidenteen kriminalizazio eta psikiatrizazioa egiten da gainera : ezta bakarrik bilatzen giza-banakoak harresian jartzeta, gisa horretan jardutean, baizik ere euren ideiak, ekarpenak susmopeko eginez desbalioztatzea dute helburu.

Gogoeta berezia merezi du ere euskal intelektualaren euskarazko obrak ebaluatzeko orduan gertatzen denak. Euskaraz egiten den oro, eta euskaraz dagoelako, Herri subiranoen ebaluaketa “ kriterioetan oinarrituz ” maila gabea kontsideratzen da, eta aurrez bazterturik aurkitzen da. Euskal unibertsoa jorratzen duen intelektualari ere ikutzen dio zigor mota horrek. Salbuespena euskal unibertsoa gaitzesteko gai hori hautatzen duenarentzat dator. Euskaraz egiten dena, bada, eta euskal unibertsoaren defentsan ari dena ere luzamenez, kontsiderazio zientifikoetatik at uzten da.

Hau guzia mingarria bada atzeritik agindutako lehiaketetan gertatzen den euskal intelektualarentzat, anitzez mingarriagoa da euskara eta euskal unibertsoa zerbitzeta helburu duten erakundeetatik kudeatutakoe-tan jokabide berarekin aurkitzean. Oraino ez gara egoera horretatik atez. Beharbada bide anitz gelditzen zaigu oraino ere egiteko. Zuk zeuk Erramun 1995ean Bat Soziolinguista aldizkariari emandako elkarrizketan

*Erramun, anitza zara.
Orduan, biziki zaila da
zure osotasunaren
adierazle izatea gutun
baten bidez. Eskaintzen
dizuten Bat
Soziolinguistika
aldizkariaren zenbaki
beteak, beharbada,
lortuko du zu zeu zaren
osotasun horretara
irakurleak hurbilaraztea.*

***Zu zeu arras gazterik
ohartu zinen euskal
intelektualaren eginbehar
neketsu horretaz. Lekuko
aita Lafitteri, 1940ko
hamarkadan idatzi
zenion gutun gartsu hura.
Baina, handik aitzina
norberak intelektual
rolerako beharrezko
dituen formakuntza
eskuratzea,
autosufizientzia
ekonomiko eta soziala
lortzea, eta hori guzia
Euskal Herrian
egunerokoari loturik
burutzeko aukeran
bihurtzea tokatu
zitzaizun banako borroka
latz bat beste mediorik
etzenuelarik.***

adierazten denak guzi horren aitzinean zure baitan jarrerazko bertute seinalatzaile bat dagoela ageri du: “Erakunde ofizialak ahalgabetuko dira, beren baitan ez badaukate herri mugimendu indartsu bat” baitzenion.

Nire ohar propio pare batekin amaituko dut gutun xume hau. Erabat ados nago zure azken esaldiarekin, baina, “ahalgabetze hori” azpimarraztu nahirik zera erantsiko dut: herri mugimendu indartsu horrek bi mota-tako arerioak ukan dauzkala. Arerio izendatzen ditugunek eragindakoak, hots, euskararen eta euskal unibertsoaren aurkako jokabideak behin eta berriz daramatzenek sortuak Alde desberdinetatik agertzen joan litezke etorkizunean ere. Herri subiranoen bitartekoak handiak baitira kalte egiteko erabili nahi direnean. Horren esperientzia ezaguna zaigu euskal intelektualoi. Hala ere, beti ezustean harrapatzen ahal gaitu. Inoiz ez baitute etsitzen. Beti erasora itzultzeko prest baitaute jarreraz. Baina bada, bigarren arerio bat, hau euskal unibertsoaren barrenetik sortzen dena, alegia. Hitz zaharretan, mugimenduaren “burukratizazioa” deituko diogu. Belaunaldi bakoitzari datorkio tentazio hori. Gurean ere azken hamarkadan kalte handia egiten ari da mugimenduaren burokratizazioa. Erne eta borrokan bizi beste erremediorik ez da horrekiko erantzuna. Eskerrik beroenak bada zuri egin duzunagatik eta egiteko gelditzen dena hain garbi eta sendo seinalatzeagatik.■